


9. Zehaztapen osatugabeko funtzioak

Irteeraren balioa sarrera aldagaien konbinazio guztientzako erabat definituta ez dagoenean zehaztapen osatugabeko funtzioa izango dugu. Kasu horietan, sinplifikazio gehien ahalbidetzen duen balioa (1 edo 0) esleitzen zaie sarrera-konbinazio horien irteerei. Hala ere, ezin da ahaztu, ezen sinplifikatzeko balioen bat hartzera behartu badugu funtzioa eta noizbait sarreretan agertuko balitz konbinazio hori irteeran egoera aktiboa sorraraziko lukeela. Adibidez, sistema batean sarrerak BCD kodean eman behar badira, 10 eta 15 arteko sarrera-konbinazioak inoiz ez dira agertuko, eta, orduan, zehaztapen osatugabeko funtzioa izango dugu.

Egia-taulan edo Karnaugh mapetan, sarrera-konbinazio horiei dagokien irteera X batekin adieraziko da. X gaiari *Axolarik gabeko* gaia deritzogu, eta 0 edo 1 balioa har dezake.

Adibidea: Demagun 0tik 9ra bitarteko zenbaki-teklaturia dugula. Sistema bat diseinatu behar da, 5a, 8a edo 9a sakatu duen detektatzen duena. Kasu horretan, led gorria piztuko da. Diseinu horri dagokion eskema 26. Irudian erakusten da, eta 20. Taulan, Karnaugh mapa eta taldekatzeko posibilitateak.



26. Irudia

		y_1y_0			
		00	01	11	10
y_3y_2	00	0	1	3	2
	01	4	5	7	6
	11	12	13	15	14
	10	8	9	11	10
		X	X	X	X

20. Taula